

OINARRIAKAZA'25

DAMA AYUDA

DAMAK DAMA Ayuda laborategiaren XIII edizioaren deialdia egin du fikziozko film luzeetarako,
sailatarako eta dokumentaletarako, honako proiektu kopuru honekin:

DAMA AYUDA FILM LUZEAK: **FILM LUZEEN 4 PROIEKTU**

DAMA AYUDA SAILAK: **SAILEN 4 PROIEKTU**

DAMA AYUDA DOKUAK: **DOKUMENTALEN 2 PROIEKTU**

SARIA

PARTE HARTZAILEAK

LEHIAKETA HONEN SARIA IZANGO DA BEDERATZI (9) HILABETEKO PROGRAMA BATEAN PARTE HARTZEA

Programa horrek tutoretzen modulu bat, ikus-entzunezko sektoreko profesional ospetsu batekin; prestakuntza programa oso bat eta ikus-entzunezko industriako ordezkariari aurkezteko saio bat izango ditu.

Garapenerako laguntza gisa BI MILA euroko (2.000 €) ekarpen ekonomikoa laborategian parte hartzeko aukeratutako proiektu bakoitzari. Ekarpene horrek dagokion zerga ordainketa bete beharko du, indarrean dagoen legeriaren arabera. Ordainketa banku transferentzia bidez egingo da onuradunaren titularitateko banku kontu batean. Egilekideen artean egindako lanen kasuan, egilekideen artean banatuko da ekarpen ekonomikoa.

- Espainiako lurraldean bizi diren adin nagusiko egileak aurkez daitezke lehiaketara.
- Eskaerak banakakoak dira, eta eskaera bakarra onartuko da hautagai bakoitzeko.
- Egilekideen kasuan, egile bakoitzak bere eskaera egin beharko du. Gehienez bi egilekide izan ditzakete proiektuek.
- Indarrean dagoen deialdian, modalitate bakar batean aurkez daitezke hautagaiak: DAMA Laguntza Film luzeak, DAMA Laguntza Dokuak edo DAMA Laguntza Sailak.
- Dokumentalen kasuan, DAMA Laguntza Dokuak kategorian aurkeztu beharko dira.
- Lehiaketan ezin izango dute parte hartu erakundeko langileek, ez eta erakundearen gobernu organoetako kideek ere.

BALDINTZAK ETA DOKUMENTAZIOA

- Proiektuak aurkezteko epea 2025eko azaroaren 27tik abenduaren 22ra izango da, 11:00k arte (penintsulako ordua). DAMAren web orrian dagoen aplikazioaren bidez aurkeztuko dira eskaerak, eta ez da onartuko beste bide batzuetatik (ez posta elektronikoz, ez aurrez aurre) aurkeztutako eskaerarik.
- Parte hartu nahi duten egileek **artxibo bakarra** aurkeztu beharko dute pdf formatuan, honako hauek izango dituenak: **sinopsia** (gehienez orrialde 1), **proiektuaren memoria** (gehienez 2 orrialde), **biografia** (gehienez orrialde 1) **pertsonaien deskribapena** (gehienez 2 orrialde) eta NANaren edo pasaportearen fotokopia. Dokumentalen kasuan, proiektuan inplikaturako pertsonen zerrenda aurkeztuko da, eta egileak edo egileek pertsona horiengana zer irispide duten zehaztuko da.
- Ideiak jatorrizkoa eta argitaratu gabea izan behar du. Ez da onartuko lehendik dauden lanen (film laburrak, eleberriak edo antzezlanak, esaterako) inolako egokitzeapenik, ezta egileak edo egilekideak hautagaiak berak badira ere.
- Aurkeztutako proiektuek egileen sorkuntza intelektualaren fruitu izan behar dute, pertsona fisiko gisa. Inolaz ere ezin dira sortu adimen artifizial sortzaileko tresnen bidez. Hala izanez gero, hautagaitza baztertu egingo da.
- Ez dira onartuko garatu eta ekoiztu diren sinopsiak, ez eta ekoizpen edo aukera akordioen edo erabilgarritasuna nolabait mugatzen duten bestelako akordioen eraginpean daudenak ere.

- Ezin dira aurkeztu beste laborategi, gidoi-sari edo lehiaketa batzuetara aurkeztu diren proiektuak edo laborategi hau garatzen den aldian aurkezten direnak, ez eta ebazteke daudenak ere. Aitzitik, laborategietan edo ikus-entzunezko beste inkubagailu batzuetan hautatu ez diren proiektuak aurkez daitezke, bai eta deialdi hau egiten den unean amaitutako beste lehiaketa batzuetan saritu ez direnak ere.
- Garapenerako edo idazketarako laguntza publikoak lortu dituzten proiektuak onartuko dira, baldin eta produkzio-etxe batekin aldez aurreko akordiorik ez badute.
- Honako hau dioen adierazpena aurkeztu behar da: proiektua aurkezten duen hautagaia aurkeztutako obraren egilea eta jabetza intelektualaren eskubide guztien titularra dela, eta obra hori jatorrizkoa dela eta ez dela lehendik dagoen beste baten egokitzapena. Zinpeko adierazpen horrek adieraziko du, halaber, obra ez dela aurkeztu irabazleak aukeratu gabe dituzten beste lehiaketa batzuetara, ez dagoela ekoizpen fasean, ez dagoela obra aurrera eramateko inolako kontraturik, eta ez dela adimen artifizial sortzaileko tresnen bidez sortu.
- Epaimahaiak ez du baloratuko aparteko dokumentaziorik, hala nola ikusizko erreferentziak, grafikoak, banaketa aipamenak eta abar. Baztertu egingo dira adimen artifizialaren bidez sortutako irudiak dituzten proiektuak.
- Espainiako edozein hizkuntza ofizialetan aurkez daitezke proiektuak. Nahi izanez gero, gaztelaniazko itzulpena ere sar daiteke.

EPAIMAHAIA

- Epaimahaia egile ospetsuek osatuko dute, eta genero parekotasunaren, aniztasunaren eta ospe irizpideen arabera aukeratuko da. Epaimahaiak ahalmena du tutoretza horien xede diren zenbait plaza eman gabe uzteko.
- Epaimahaiaren eztabaidak eta bozketak isilpekoak izango dira. Hautatutako proiektuen eta haien egileen zerrenda DAMAren webgunean eta sare sozialetan argitaratuko da. Ez da, inolaz ere, banakako komunikaziorik egingo.
- Aukeratutako proiektuen hautaketa apelaezina izango da.

HAUTATZEKO IRIZPIDEAK

1. Proposamenaren sormen eta kultura kalitatea.
2. Genero parekotasuna sustatuko da laborategian hautatutakoen artean.
3. Proiektu finalistek elkarrizketa pertsonala izango dute azken ebazpena eman aurretik.

BALIABIDEAK

- DAMA Ayuda ekimenak aholkularitza programa eskaintzen du 9 hilabetez, otsaila eta iraila bitartean, ikus-entzunezko industrian ospe handia duten mentoreekin.
- Gainera, prestakuntza ziklo bat eskaintzen du ikus-entzunezko industriaren gaurkotasuneko arloetan, eta proiektuak industriari aurkezteko saio bat. Prestakuntza programa eskola magistralek, tailerrek eta topaketek osatzen dute.
- Parte hartzaileek salmenta dossier oso bat diseinatzeko aukera izango dute.
- DAMAk lan guneak eskainiko ditu Madrilgo eta Bartzelonako egoitzan tutoretzak egiteko eta programaren jardueretan modu birtualean parte hartzeko aukera emango du. DAMAk egokitzen jotzen dituen prestakuntza eta aurkezpenetarako, parte hartzailea ez bada Madrilen bizi eta joan-etorria egin beharra justifikatzen badu, joan-etorri eta ostatu gastuetarako baimena eskatu ahal izango du.

BETEBEHARRAK

- Parte hartzeko hautatuak izan direla jakinarazten zaienetik 7 egun naturaleko epean jakinarazi behar dute programan parte hartzea onartzen duten ala ez. Epe horretan erantzuten ez badute, parte hartzeko aukera galduko dute.
- Sinopsia eta haren ondoriozko obrarik beste lehiaketa batera ez aurkeztea programa hau erabat amaitu arte. Hau da, deialdi honen hasieratik laborategia amaitu arte, ezin da proiektu hau beste egoitza edo laborategi batzuetan aurkeztu.

- Instalazioak behar bezala erabiltzea eta esleitu zaizkien aretoak lanerako gune gisa soilik erabiltzea.
- Tutoretza prozesua osatzea, honela definitua:
 - Hautatutako proiektu bakoitzari tutore bat esleituko zaio.
 - Proiektuak garatzeko tutoretza prozesuak 9 hilabete iraungo du, otsailetik irailera bitartean. Tutoretzen amaieran, film luzearen gidoiaren lehen bertsioa, sailaren pilotuaren lehen bertsioa eta dokumentalaren gidoiaren lehen bertsioa emango dira.
 - Proiektu bakoitzari esleitutako tutoreak ezarriko du tutoretzak garatzeko modua. Tutoretza horiek urrutitik egin ahal izango dira, prozedura telematikoen bidez. Aurrez aurreko edozein tutoretza, betiere tutoreak aldeztu aurretik onartuta, Madrilgo udalerrian egingo da, eta hautatuaren kontura izango dira joan-etorrien eta ostatuaren gastuak.
 - Tutoreak lan egutegi bat ezarriko du proiektua aurrera eramateko, eta hautatuak aprobetxamenduz bete beharko du. Bestela, tutoretza utzi egingo da.
- Prestakuntzara joatea:
 - DAMA Ayuda programako parte hartzaileek konpromisoa hartzen dute laborategiko koordinatzaileek programatutako jarduera guztietara joateko.

LEGE BALDINTZAK

- Egindako proiektua egilearen jabetzakoa izango da. Lehiaketan parte hartzeak ez du esan nahi proiektu edo obren gaineko eskubideak eskualdatzen direnik, lehiaketa hemen araututako baldintzetan garatzeko beharrezkoak diren baimenez gain.
- Ideiak originala izan behar du. Deialdi honetako parte hartzaileak edo parte hartzaileek lehiaketara aurkezten diren obren gaineko jabetza intelektualeko eskubide guztien titular izan beharko dute. Era berean, bermatzen dute proiektu horrek ez duela urratzen inolako ustiapen, ohore eta intimitate eskubiderik, ez eta jabetza intelektual eta industrialeko beste eskubiderik eta hirugarrenen bestelako eskubiderik ere. Alde horretatik, parte hartzaileak proiektuaren gaineko legezko erantzukizun orotatik salbuetsiko du lehiaketa, eta, ondorioz, parte hartzaileak bere gain hartuko du aurkeztutako proiektuari buruz hirugarrenak aurkeztutako erreklamazio oro.
- Proiektu irabazleak azkenean ekoizten badira, irabazleek konpromisoa hartu behar dute goiburuko kreditu tituluetan “DAMA AYUDA XIIIren” irabazle gisa identifikatzeko. Era berean, proiektu irabazleek identifikazio hori sartu beharko dute, hala badagokio, eskubideak lagatzeko egiten diren kontratuetan, lagapen hartzaileek beren gain har dezaten irabazle izaera islatzeko betebeharrak hori. Era berean, sinopsiarekin, ondoriozko obrarekin edo haien edozein elementurekin zerikusia duten ekoizpen kontratuetan edo beste edozein kontratu motatan identifikazio hori jaso beharko da.
- Irabazleek baimena ematen diote DAMAri laborategian etorkizunean sortuko diren obren zatiak partekatzeko, aurrera eramandako laborategi proiektua zabaltzeko eta sustatzeko, ez beste ezertarako. Ahalmen hori fede onez erabiliko da, obraren ohiko ustiapenari kalterik egin gabe, merkatuak trailerrekiko dituen erabileren arabera, eta, beharrezkoa izanez gero, egileekin eta ekoizleekin koordinatuta. Beharrezkoa denean, parte hartzaileak, adierazitako baimen hori azalduko du sortutako obrari dagokionez etorkizunean egiten dituen kontratuetan.

KONFIDENTZIALITASUNA ETA DATU PERTSONALEN BABESA

- Parte hartzaileek ematen dituzten informazio eta datu pertsonal guztiak konfidentzialak dira, eta ezin izango zaizkie hirugarrenei jakinarazi, ez eta ezarritakoez bestelako helburuetarako erabili ere, indarrean dagoen legerian jasotako salbuespenetan izan ezik.
- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EU) Erregelamendua, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa; Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa eta indarrean dagoen gainerako araudia betez, DAMAk jakinarazten du lehiaketan erregistratzeko formularioan eman diren datu pertsonalak lehiaketa horretan parte hartzea kudeatzeko erabiliko direla (beharrezko antolaketa, hedapena eta komunikazioa). Harreman horrek irauten duen denbora guztian gordeko dira datuak, baita ondoren ere, harreman horretatik etor litezkeen erantzukizunak preskribatu arte.
- Era berean, lehiaketarako gaitutako webgunearen bidez jasotzen diren datuak webgune horretan zehaztutako lege oharrari eta pribatutasun politikari lotuta egongo dira.
- Lehiakideek datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, tratamendua mugatzeko, aurka egiteko eta eramateko eskubideak baliatu ahal izango dituzte. Horretarako, DAMAra jo beharko dute (Gran Vía de San Francisco, 8 – 28005 – Madril), gutun ziurtatu bidez edo dama@damautor.es helbidera idatzita, betiere behar bezala identifikatuta. Era berean erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute kontrol agintaritza baten aurrean.

ANTOLATZAILEEN AHALMENAK

- Antolatzaileek aldaketak egin ahal izango dituzte oinarri hauetan, bai eta prozedurari edo sariei buruzko eranskinak sartu ere, betiere aldaketa horiek ekitate-irizpideek justifikatzen badituzte, parte hartzaileei kalterik eragiten ez badiete eta lehiaketan zehar behar bezala jakinarazten badira. Antolatzaileek ahalmena izango dute gerta daitezkeen eta oinarri hauetan jasota ez dauden ezustekoei buruz erabakitzeke. Zehazki, antolatzaileek eskubidea izango dute arestian adierazitako datak aldatzeko, deialdi hau behar bezala kudeatzeko beharrezkoa izanez gero, eta parte hartzaileei horren berri emango zaie. Ez dira onartuko epez kanpo iristen diren proiektuak edo ezarritako baldintzak betetzen ez dituztenak.
- Antolatzaileek beren esku dauden proiektuen kopiak suntsitu egingo dituzte edizioa amaitu eta gero.
- Parte hartzeak berekin dakar baimena ematea dokumentazio guztia epaimahaikideei eta lehiaketa gauzatzeko lanetan parte hartzen duten laguntzaile administratibo nahiz teknikoei helarazteko.
- Oinarri hauek edo parte hartzeko baldintzetakoren bat bete ezean, edo emandako daturen bat gezurrezkoa bada, hori egin duenak parte hartzailea izateari utziko dio, eta, hala badagokio, baita irabazlea izateari ere. Kasu horretan, antolatzaileek beste irabazle bat izendatu ahal izango dute, adierazitako prozedura bera erabilita.

OINARRIAK ONARTZEA

- Deialdi honetan parte hartzeak esan nahi du oinarriak erabat onartzen direla, bai eta antolatzaileen eta epaimahaiaren erabakiak ere, eta horiek ez badira betetzen kanpoan geratuko da parte hartzailea. Saria emateko, oinarriak bete beharko dira deialdi honetan ezarritako moduan eta epeetan.
- Era berean, parte hartzaile bakoitzak baimena ematen du bere irudia eta datu profesionalak/pertsonalak erabiltzeko edo zabaltzeko lehiaketa honen esparruan. Ekintza horien artean sartzen dira lehiaketa sustatzeko jarduerak.